EBAZPENA, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., salbuesten da, LOREZAINTZA ALORRERAKO KABINA BIKOITZEKO ETA 7 PLAZAKO KAMIOI BAT HORNITZEA helburua duen LIZITAZIOAren esparruan, ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuak erosteik.

Resolución, del Director de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial, por la que se exime al TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., de la obligación de adquirir vehículos que utilicen combustibles alternativos en el marco de la licitación para el SUMINISTRO DE UN CAMIÓN, DOBLE CABINA, 7 PLAZAS, PARA EL ÁREA DE JARDINERÍA.

AURREKARIAK

1.- TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P.,k, 2023ko urtarrilaren 27an, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21.3 artikuluan aurreikusitako salbuespena eskatu dio Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza honi, LOREZAINTZA ALORRERAKO KABINA BIKOITZEKO ETA 7 PLAZAKO KAMIOI BAT HORNITZEA helburua duen LIZITAZIOAren esparruan.

ANTECEDENTES DE HECHO

1.- Con fecha 27 de enero de 2023, el TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., en el marco de la LICITACIÓN PARA EL SUMINISTRO DE UN CAMIÓN, DOBLE CABINA, 7 PLAZAS, PARA EL ÁREA DE JARDINERÍA, solicita ante esta Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial, la exención contemplada en el artículo 21.3 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero.

2.- Eskaerarekin batera, merkatuan ordezko erregaiak dituzten eta beren beharrizanei erantzun diezaieketen ibilgailuen gabezia, zehaztapen tekniko zehatzak edo erabilera-ezaugarri bereziak direla eta, eta hornidura-punturik ez izatea, justifikatzen duen txostena aurkezten da.

2.- La solicitud se acompaña de informe justificativo de la carencia en el mercado de vehículos con combustibles alternativos que puedan dar respuesta a las necesidades, por razón de especificaciones técnicas concretas o características de uso particulares, o bien la carencia de puntos de suministro.

LEGE OINARRIAK

1.-Azaroaren 10ko Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 254/2020 Dekretuak, bere 27.5 artikuluan aipatutakoaren arabera Proiektu Estrategikoen eta Industria-Administrazioaren Zuzendaritza hau eskudun da ebazpen hau emateko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

1.-La Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial es la competente para dictar la presente resolución de conformidad con lo establecido en el artículo 27.5 del Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, de conformidad con lo establecido en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T4B4Z-0Y32 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T4B4Z-0Y32 en la sede electronica https://euskadi.eus/localizador

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21.3 artikuluak ezartzen duenez, 2020 urtetik aurrera euskal administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailuen %100ek ordezko erregaiak erabili behar izateak ez die eragingo, egiten duten jardueraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, petroliotik eratorritako erregaiek bultzatutako gutxieneko garraio- ibilgailuak edukitzeko beharra justifikatzen duten sailei edo erakundeei.

2.- El artículo 21.3 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, establece que la obligación de que, a partir del año 2020, el 100% de los vehículos que se adquieran por las administraciones públicas vascas deban utilizar combustibles alternativos, podrá no afectar a aquellos departamentos o entes que, atendiendo a las específicas características de la actividad que realicen, justifiquen la necesidad de disponer de un mínimo de vehículos de transporte impulsados por combustibles derivados del petróleo.

3.- 254/2020 Dekretuaren 27.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ibilgailuen lizitazio zehatz bakoitzean, zehaztapen tekniko zehatzengatik edo erabilera-ezaugarri partikularrengatik, betebehar horretatik salbuetsiak izan behar diren sail edo erakundeek, merkatuan ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuek duten gabeziaren justifikazioa aurkeztu beharko dute energiaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzan.

3.- De conformidad con lo establecido en el artículo 27.5 del Decreto 254/2020, los Departamentos o entidades que precisen ser dispensados de dicha obligación en una concreta licitación de vehículos deberán presentar, ante la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de energía, justificación de la carencia en el mercado de vehículos con combustibles alternativos que puedan dar respuesta a sus necesidades, por razón de especificaciones técnicas concretas o características de uso particulares.

4.- TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P.,-k, aurkeztutako dokumentazioarekin nahikoa egiaztatutzat jotzen dira eskatutako salbuespena justifikatzen duten arrazoiak.

4.- Con la documentación aportada por TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., se consideran acreditados suficientemente los motivos que justifican la exención solicitada.

EBATZI DUT

TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., salbuesten baita LOREZAINTZA ALORRERAKO KABINA BIKOITZEKO ETA 7 PLAZAKO KAMIOI BAT HORNITZEA helburua duen LIZITAZIOAren esparruan, ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuak erosteik.

RESUELVO

Declarar al TALLER USOA LANTEGIA, S.A.U.M.P., exento de la obligación de adquirir vehículos que utilicen combustibles alternativos en el marco de la LICITACIÓN PARA EL SUMINISTRO DE UN CAMIÓN, DOBLE CABINA, 7 PLAZAS, PARA EL ÁREA DE JARDINERÍA.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria Sailburuordetzan hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hori guztia Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Arruntaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak bere 121. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Esta Resolución no pone fin a la vía administrativa. Contra la misma, podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Industria, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de esta notificación, de conformidad con el artículo 121 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Stua./Fdo.: ZIGOR URKIAGA URKIZA

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA

DIRECTOR DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL